AITZINA **Editorea:** Fermin Munarriz. **Koordinatzailea:** Mariasun Monzón. **Aholkularia:** Iñaki Egaña. **Diseinatzailea:** Juan Luis Napal.
**Helbidea:** Rincón de la Aduana, 18 behea. 31001 Iruñea. **Tlfnoa.** 948-21 99 99. **Faxa:** 948-212329. **E-mail:** aitzina@teleline.es

# NORANTZA

ANTTON GURRUTXAGA
ELHUYARREKO HIZTEGIGINTZA SAILEKO ARDURADUNA

# «Gure produktuak hobetzen eta aberasten saiatzen gara»

Euskararen munduan aldaketa eta berrikuntza ugari izan direla azpimarratuz, Elhuyarrek bere produktuak berriturik eta eguneraturik eskaintzen ditu.

AMAIA MUNDIÑANO

Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco Elhuyarren hiztegia argitaratu zenetik lau urte igaro ondoren, euskararen eta, kasu honetan, hizkuntzaren beraren normalizazioaren alorrean izan diren aldaketa eta berritasunak direla medio, produktu berrituak eskaintzearen aldeko apustua egin du Elhuyarrek.

**Zeintzuk dira hiztegi berrituaren ezaugarriak?**

Euskararen munduan izaten ari diren aldaketak direla eta, duela bi urte hiztegiaren edizio berria prestatzea erabaki genuen. Honetan, dudarik gabe, Euskaltzaindiak Hiztegi Batua bukatu izanak eragin du. Beraz, horren hiztegia, erabakiak eta bestelako aholkuak adostu ondoren, hiztegi berritua eskaintzea izan da gure asmoa. Ildo horretatik, hiztegi berria eskuratzean, euskaldunak badaki bertan ageri diren grafiak eguneraturik datozela. Horrez gain, ordea, hiztegiak lehenengo edizioa kaleratu genuenetik Elhuyarrek jaso dituen oharrak, galderak eta guk geuk antzemaniko arazoak aztertu eta landu ditugu, edukiz osatuagoa eta erabilgarriagoa den hiztegi berri bat eskaintzeko. Beraz, itxuraz aldatua egoteaz gain, mamia ere oso aldatua agertzen da edizio berri honetan.

**Zein da berrikuntza hauen helburua?**

Gure hiztegiari duela sei bat urte ekin genionean, erabiltzaileei tresna erabilgarri eta bateragile bat eskaintzea izan genuen helburua. Ildo horretatik, gure lana Euskaltzaindiaren erabakiak eguneratzera soilik ezin dela mugatu pentsatzen dugu, hainbat alorretan dauden arazo eta premiei aurre egin beharra dagoela kontuan hartuz. Ondorioz, gure eguneroko lanean eta horren emaitzetan gaur egungo euskararen ahalik eta argazkirik zehatzena egiten saiatzen gara.

**Hiztegi elektronikoak ere aukera ezberdinak eskaintzen ditu.**

Bai, holaxe da. Gainera, horixe da formaz gehien aldatu den produktua. CDak, liburuan argitaratutako edukiak eskaintzeaz gain, beste hainbat abantaila eskura jartzen ditu: hitz bilaketak egiteko aukera azkarragoa, bilaketak gaika egiteko aukera, eranskinak kontsultatzekoa, bilaketa konplexuagoak egitekoa eta abar. Produktu honek, dudarik gabe, erabiltzaileari tresna erabilterrazagoa eta azkarragoa izateko aukera ematen dio.



Karlos Corbella

**Bestalde, erakunde eta enpresei zuzendutako eskaintza bibila egin duzue.**

Gure iritziz, enpresa edota erakunde batean hainbat langile baldin badaude, eta denek, esaterako, hiztegi elektronikoa erabili nahi badute, bakoitzarentzat CD bat erostea eskatzen du horrek. Hori kontuan izanda, enpresa batzuetan hainbat froga egin eta gero, berauei eskaintza berezi bat egitea erdietsi dugu. Ildo horretatik, euren intranetean produktua instalatzea eta berau kudeatzeaz eta mantentze lanez arduratzea erabaki dugu. Horretaz gain, gainera, bakoitzak bere behar konkretuei erantzuteko moduko lexiko berezitu bat eskainiko zaie.

**Aurrera begira, berriz, *plug-in*-a kaleratzea lehentasunetariko bat al da?**

*Plug-in*-a programa batean integratzen den programatxoa da. Zentzu horretan, eta testu prozesadore erabilgarriena Word dela kontuan izanda, EHUko Donostiako Informatika fakultateko IXA taldearekin elkarlanean *plug-in* bat osatu dugu. Berau Word-en bertan txertatuko da eta erabiltzaileak kontsultak egiteko zuzenean erabili ahal izango du hiztegia. Produktu hau bukatzear dago eta datorren urterako eskuragai izango da. Dena den, lan honetaz gain, euskararen normalizazioaren aldeko lanak aurrera darrai eta horrek, era batera edo bestera, gure produktua hobetu, aberastu eta euskaldunei ahalik eta produktu erabilgarriena eskaintzea ekarriko du.

## ZIRTOKA



Txillardegi

### Mugak

Kulturgintzako 140 intelektualek argitara duten Agiria irakurri dut.

Mamia eta sinadurak elkarri dagozkie. Sospresarik ez.

Oro har, puntu batean egon naiteke osoki ados: isiltzea ez dela orain bidezkoa. Argi eta garbi mintzatzeko tenorea dugula.

Herriraino ahotsa eta iritziak irits eraztea, ordea, ez zaio askori eskaintzen. «Inori» jartzeko zorian egon naiz.... Hor nonbait baita.

Legetasuna, ofizialtasuna eta Estatua ikutu ezinezko *totem* sakratu bihurtzen direnean, isiltzea besterik ez zaigu gelditzen errotik aurka gaudenoi.

GARA eta "Egunkaria" dira gure azkeneko aukerak. Biba zuek!

Baina zerok ere badituzue mugak. Nik neuk artikulu hau ostiralean bidali beharko dut (22), eta asteartera arte (26) ez da argitaratuko.

Tarte horretan manifa larriak egongo dira (Donostiako barne); eta seguru aski artikulu hau *«out»* irakurriko duzue datorren astean.

Gaurkotasunetik ateko gaiak ikutzea izan daiteke irtenbide bat (*«marciano»* itxura hartuz). Edo atzerriko kontuak ikutu. Edo-ta aspaldiko kontuak...

Denotan, ordea, arazo bera, edo bertsua bederen: gatazka ezin larriagoa kalean eta familietan beretan pil-pilean dagoelarik, guk, idazleok... estratosfera politikoan kokatu behar!

Zer egingo? Ez dakit.

# AITZINDARIAK

